

## JESUSEN JAINKOA

Hainbat irudiren bidez hitz egiten zaigu Biblian Jainkoari buruz. Jesusek Jainkoa nolakoa den erakusten digu bere hitzez, zeinuez eta bizitza osoaz.

### JAINKOA ON ETA MAITEKORRA DA

Oseas 11, 3-4

“Nik erakutsi nion oinez... besoetan eraman nuen... Amodio-lokarriz erakartzen nituen, maitasun-loturaz. Haurtxoa musuraino jasotzen duenaren antzeko nintzen haientzat; makurtu eta jaten ematen nion”.

Salmo 102, 13-14

“Nola aita seme-alabentzat errukior, hala Jauna begirune diotenentzat errukior. Badaki ongi zerez garen eginak, gogoan du hautsa besterik ez garela”.

Isaias 49, 15

“Ahaztu ote dezake amak bere haurtxoa edo bere sabeleko umeari errukia ukatu? Ba, amak haurra ahaztuko balu ere, nik ez zaitut ahaztuko”.

### JAINKOAK GIDATZEN GAITU ETA LAGUN EGITEN DIGU

Salmo 22, 1-4

“Jauna dut artzain: ez zait ezer falta. Larre guritan etzanarazten nau, ur baretara eramaten, eta indarrak berritzen; bide egokitik narama, leiala delako. Ibar beltz ilunetan banabil ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik, zu nirekin baitzaude”.

### JAINKOAK ENTZUN ETA ARRETA ESKAINTZEN DIGU

Mateo 7, 11

“Beraz, zuek gaiztoak izanik, seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez areago ez dizkio zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei?”.

Mateo 6, 25-32

“Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jan edo edango, edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira aireko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez ote duzue horiek baino askoz gehiago balio zuek? Asko arduratu arren, zuetako nork luza lezake bizitza apurtxo bat ere?

Eta jantzia, zertan kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaietan: ez dira lanean penatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen jantzen horietako baten pare. Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar sutan erreko den belarra Jainkoak horrela jantzen badu, ez ote askoz gehiago zuek, sinesmen gutxikook? Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Fedegabeak arduratu ohi dira horiez guztiez; baina zeruko zuen Aitak badaki horren guztiaren beharra duzuen”.

### JAINKOAK AHULAK BABESTEN ETA ASKATZEN DITU

Judit 9, 11

“Apalen Jainko zara zu, txikien laguntzaile, ahulen babesle, ezezagunen zaintzaile, etsaien salbatzaile”.

Salmo 145, 7-9

“Zapalduen eskubideak defendatzen ditu, gose direnei ogia ematen. Jaunak askatzen ditu presoak, Jaunak zabaltzen itsuen begiak, Jaunak altxatzen lur jota daudenak. Jaunak maitatzen zintzoak, Jaunak ditu etorkinak zaintzen, umezurtz eta alargunei zutik eusten”.

### **JAINKOAK HARRERA EGIN ETA BARKATU EGITEN GAITU**

Lukas 15, 10

“Egia esan, berdin pozten da Jainkoa ere bere aingeruekin bihotz-berritzen den bekatari batengatik”.

Lukas 15, 20

“Jaiki eta aitaren etxera abiatu zen. Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erukitu egin zen; eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion”.

Salmo 102, 8-10

“Bihozbera eta errukiorra da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea. Ez da beti agiraka ari, ez du haserrea luzaro gordetzen. Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi bezala, ez digu ordaintzen geure erruen arabera”.

### **JAINKOA MAITASUNA DA**

1 Joan 4, 8-9

“Jainkoa maitasuna da. Hara nola agertu den Jainkoaren gureganako maitasuna: Jainkoak bere seme bakarra mundura bidali zuen, beronen bidez bizia izan dezagun”.

### **JAINKOA AITA DA**

Erromatarrei 8, 15

“Zuek ez duzue hartu esklabo egingo zaituzten espiritua... zuek, seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue, eta, Espirituaren bidez, Abba-Aita esanez hots egiten diozue Jainkoari”.

Mateo 6, 9-13

“Zuek, egizue otoitz honela:

Gure Aita zerukoa,  
agertu santu zure izena,  
etorrarazi zeure erregetza;  
betearazi lurrean zeure nahia,  
zeruan betetzen den bezala.  
Emaguzu gaur egun honetako ogia,  
eta barkatu gure erruen zorra,  
guk ere geure zordunei  
barkatu digunez gero;  
ez utzi gu tentaldian erortzen,  
eta gorde gaitzazu  
gaiztoarengandik.